

## ERRAUSTEGIAREN PROIEKTUARI BURUZ

Usurbilgo Alkateak Zubietan egin asmo duten erraustegiaren inguruko bere kezka azalduz gutun bat bidali dio Zaldibiako Alkateari eta bertan, erraustegiaren gaia Zaldibiako Udalbatzan landu dadila eskatzen dio.

Zaldibiako Alkate den Joxan Etxabe Nazabalek ez-ohiko osoko bilkura deitu eta gaia eztabaidatu da.

Hemen biltzen da gai honen inguruan udalbatza osatzen duten alderdiek duten iritzia:

- EHBILDU:

EHBilduren udal-taldea osatzen duten sei zinegotzi eta alkateak, Usurbilgo Alkatearen kezka konpartitzen dute.

Zaldibian ez lukete erraustegirik nahi eta beraientzat nahi ez dutena, besteentzat ere ez dute nahi.

Erraustegiaren proiektuaren aurkako arrazoi hauek ikusten dituzte:

“Arrazoiak:

1. Osasuna kaltetzen duela frogatzen duten ikerketak egin dira. “Erraustegi baten ondoan bizitzeak minbiziaz hiltzeko arriskua handitzen du” Carlos III Osasun institutua, Madril.
2. Ekonomikoki kostu handia du, Gipuzkoarrak 35 urterako hipotekatuko gaituena. 1200 milioi euro ordainduko dira Gipuzkoarron tasetatik. Udaletan urrian tasak onartu ondoren, abendu amaieran %25eko tasa igoera ezarri zuen GHK-k hondakinen tratamenduan, Udalen eta herritarren ekonomia desorekatuz.
3. Ez da beharrezkoa Gipuzkoan erraustegia eraikitzea. Datuekin egunero ari gara demostratzen Zaldibian eta beste hainbat herritan. Europako birziklatze-tasa eredugarrienetakoak dauzkagu.”

Erraustegia eraikitzea ekidin eta egoera honi konponbide ekologiko, ekonomiko eta jasangarriago bat emateko proposamena dute, Europako zuzentarauak kontuan hartuta:

“Proposamena:

1. Zabor kopurua gutxitzea, horretarako legeen bidez produktuen ekodiseinua bultzatuz.
2. Berrerabilpena eta birziklapena handitzea. Produktuen bizitza luzatu, konpondu eta ahalik eta gehien gaika sailkatu birziklatzeko.
3. Hondakinei errausketan oinarritzen ez den tratamendu alternatiboa ematea. Birziklapena, konposta eta birzikla ezin daitekeena inertizatzea da bidea.
4. Ikerketa+Garapena+Berrikuntzaren (I+G+B) aldeko apustua egitea soluzio berriak bilatze aldera, eta inerteen biltegietarako bidea hartzea - inoiz ez zabortegei toxikoen bidea -, beti ere, ‘zero zabor’ helburuarekin.”

Zaldibian, bide jasangarri eta alternatibo hau jorrazteko konpromisoa dute eta Gipuzkoako Foru Aldundiari erraustegiaren proiektua bertan behera utz dezan eskatzen diote aipatu diren arrazoiak tarteko.

- ZALDIBIA HERRIGINTZAN:

Erraustegiaren gaia Foru Aldundiaren eskumenekoa denez eta ez Udalarena, gai horretan ez dira sartzen.

Zaldibian, 2016ko ekainaren 21ean